

2018KO ABUZTUKO EFEMERIDEAK

(Ordu guztiak denbora unibertsalean eman dira. bi ordu gehitu ordu ofiziala kalkulatzeko)

Poloetan kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 0 Km/h

Ekuadorean kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.668 Km/h

Donostian kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.220 Km/h

BEHAKETA PROPOSAMENAK

- Begi hutsez:

-Hilaren 1an, 17:00etan, Eta Aquilae izar zeifeidarraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 7,177 egunean behin. Hilaren 8an, 16an, 23an eta 30an izango dira beste maximoak.

- Hilaren 1an, 18:00an, Perseoko Algol izar aldakorraren distira minimoa. Magnitudea 3,3tik gertu. Hilaren 4an, 7an, 10an, 13an, 16an, 18an, 21an, 24an, 27an eta 30an izango dira.

- Hilaren 4an, 04:00an, Delta Cephei izar aldakorraren distira maximoa. Magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 5,366 egunean behin. Hilaren 9an, 14an, 20an, 25an eta 31an izango dira beste maximoak.

- Hilaren 12tik 13ra doan gauetan, Perseida izeneko izar iheskorak ikusiko dira.

- Prismatikoekin edo teleskopioekin:

-Mapa baten laguntzaz, ilargiaren akzidente ezberdinak ikus daitezke

ILARGIA ABUZTUAN (Lurrarekiko orbita-abiadura 1km/s = 3.600km/ordu)

04 00:33tan, konjuntzio geozentrikoan Uranorekin, 4,7^ora.

04 Librazio maximoa latitudean ($l=6,8^{\circ}$). Terminadoretik gertu dauden akzidenteak ikusteko aukera aproposa.

Apenino mendiak, Piton tontorra eta Archimendes Ptolemaeus, Alfonsus eta Paton kraterak.

04 18:18tan, Ilbehera.

06 01:46tan, konjuntzio geozentrikoan Tauroko Pleyadeekin, 8,9^ora.

06 18:45tan, konjuntzio geozentrikoan Tauroko Aldebaran izarrarekin, 1,1^ora.

10 13:40tan, Goranzko nodotik pasatuko da.

10 18:07tan, Perigeotik pasatuko da, Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena 358.078 km (aurreko apogeoan baino 48.145 km gutxiago).

11 09:58tan, Ilberria. Nodotik pasatzearekiko gertutasunak, hemendik ikusi ezingo dugun eguzki eklipse partzial bat sortuko du. Ipar europar eta asiako ipar-ekialdean ikusi ahal izango da.

14 18:05tan, konjuntzio geozentrikoan Artizarrarekin, 5,9^ora.

15 22:23an, konjuntzio geozentrikoan Virgoko Spica izarrarekin, 7,2^ora.

17 Librazio maximoa longitudean ($l=7,6^{\circ}$) eta minimoa latitudean ($b=-6,8^{\circ}$). Terminadoretik gertu dauden akzidenteak ikusteko aukera aproposa. Aristoteles eta Eudodoxus kraterak.

17 13:06tan, konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin, 4,3^ora.

18 07:48tan, Ilgora.

21 09:33tan, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin, 2,1^ora.

23 11:23tan, Apogeoetik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 405.746km (aurreko perigeoan baino 47.668 km gehiago).

23 14:19tan, konjuntzio geozentrikoan Marterekin, 6,8^ora.

24 04:49tan, beheranzko nodotik pasatuko da.

26 11:56tan, ilbetea.

27 12:04tan, konjuntzio geozentrikoan Neptunorekin, 2,3^ora.

31 Librazio maximoa latitudean ($b=6,7^{\circ}$). Terminadoretik gertu dauden akzidenteak ikusteko aukera aproposa.

31 05:50tan, konjuntzio geozentrikoan Uranorekin, 4,6^ora.

PLANETAK ABUZTUAN (LURRAREN ORBITA-ABIADURA: 107.280 km/h)**Merkurio (Hilaren 22tik Aurrera ikusi daiteke gauaren amaieran) orbita-abiadura 172.440 Km/h**

Konjuntzioan hilaren 9an, 22tik Aurrera ikusi daiteke, gauaren amaieran ekialde ipar-ekialdeko zeruertze gainean, eguzkia atera baino ordu ta laurden lehenago. Elongazio maximoa hilaren 26an izango da eta 31an magnitude negatibora iritsiko da, eta behaketarako egoera egokian aurkituko dugu. Igoera zuzena 9h 30m eta deklinazioa $9^{\circ}54'$ hilaren 1an, eta hilaren 30an igoera zuzena 9h25m eta deklinazioa $15^{\circ}27'$ hilaren 31an. Hilabetea Leon hasi eta Cancerrera bueltatuko da (eretrogradazio kiribila) berriro Leon amaitzeko. Magnitudea 0,7tik -0,1ra igoko da.

Artizarra (Arratsalde amaieran ikusi ahal izango dugu) orbita-abiadura 126.000 Km/h

Ekliptikaren inklinazioak eta lerro honen hegoalderutzko igarotzeak, mendebalde hego-mendebaldeko zeruertzeraz bultzatuko dute geroz eta goizago. Eguzkia jarri eta ordu eta 45 minutura ezkutatu da hilaren 1an, eta ordu eta 15 minutura hilaren 31an. Hilaren 12an izango da begi hutsez behatzeko egunik aproposena, mendebalde hego-mendebaldeko zeruertzetik 6^ora, eguzkia sartu eta ordu batera. Koordinatuak aldatu egingo dira, hilaren 1an Igoera zuzena 11h 41m eta deklinazioa 2^o izango da, eta hilaren 31an Igoera zuzena 13h 19m eta deklinazioa 11^o40'. Hilabete guztia Virgon emango du. Magnitudea -4,2tik -4,4ra pasako da.

Marte (Gauaren lehen erdialdea pasa arte ikusi ahal izango dugu) orbita-abiadura 86.760 Km/h

Eguzkia jarri eta minutu gutxira aterako da hilaren 1an eta ordu bat lehenago hilaren 31an. Erretrogradazio mogimenduak, Sagitario bisitatzeraz eramango du egun batzuz, berriro Capricorniora bueltatu aurretik. Koordinatuak aldatu egingo dira, hilaren 1an Igoera zuzena 20h 27m eta deklinazioa -25^o54' izango da, eta hilaren 31an Igoera zuzena 20h 08m eta deklinazioa -26^o04'. Capricornion hasi eta Sagitariora bueltatuko da, berriro Capricorniora pasatzeko. Magnitudea -2,8tik -2,4ra pasako da.

Jupiter (Gauaren hasieran ikusiko dugu) orbita-abiadura 47.160 Km/h

Arratsalde amaieran azalduko da, mendebalde hego-mendebaldeko zeruertzetik 12^ora hilaren 1an eta 7^ora hilaren 31an. Behaketarako denbora atzean utziz bagoaz ere, hilaren 14an oraindik, begi hutsez aurki dezakegu. Koordinatuak, hilaren 1an Igoera zuzena 14h 48m eta deklinazioa -15^o07' izango da, eta hilaren 31an Igoera zuzena 14h 59m eta deklinazioa -16^o03'. Hilabete osoa Libran emango du. Magnitudea apur bat jetsiko da -2,1tik -2ra.

Saturno (Gauaren lehen erdialdea baino gehio ikusiko dugu) orbita-abiadura 34.560 Km/h

Hilaren 1an eguzkia sartu eta bi ordura aurkituko dugu, meridianotik 24^ora, eta ordu bat lehenago hilaren 31an. Behaketarako denbora murriztuz doa, mendebalde hego-mendebaldeko zeruertzeraz gerturatuz baita. Hilabete guztian zehar, ilargia edo argi kutsadurik ez balego, esnebideak inguratuta aurki dezakegu. Koordinatuak aldatu egingo dira, hilaren 1an Igoera zuzena 18h 14m eta deklinazioa -22^o36' izango da, eta hilaren 31an Igoera zuzena 18h 11m eta deklinazioa -22^o41'. Sagitarion emango du hilabete osoa. Magnitudea 0,2tik 0,4ra igoko da.

Hilaren 01an 10:12an, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Hilaren 09an 10:14an, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Hilaren 17an 08:06an, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Hilaren 25an 08:18an, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Urano (Gau amaieran ikusiko dugu) orbita-abiadura 24.480 Km/h

Egonkor hilaren 7an, Erretrogradazio kiribil luze eta motel bat hasiko du, Piscisera eramango duenak urte amaieran. Ekialde hego-ekialdeko zeruertzetik azalduko da eta 57^ora aurkituko da eguzkia ateratzean. Argi kutsaduratik libre dauden eta orientazio egokian aurkitzen diren lekuetatik, begi hutsez ikus daiteke, Teleskopioarekin, tonu urdina antzeman diezaiogegu. Igoera zuzena 2h, deklinazioa 12^o. Hilabete guztia Ariesen emango du. Magnitudea 5,8tik 5,7ra pasako da.

Neptuno (Gauaren amaieran ikusi ahal izango dugu) orbita-abiadura 19.440 Km/h

Ekialde hego-ekialdeko zeruertzean aurkituko dugu gauaren amaieran, zeruertzetik 28^ora. Igoera zuzena 23h, deklinazioa -6^o. Hilabete osoa Acuarion emango du. Magnitudea 7,8an mantenduko da.

ABUZTUKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

- Hilaren 1ean, asteazkena, eguerdian, 2.458.332 egun juliotarra hasiko da.
- Egunak 14 ordu eta 32 minutuko iraupena du hilaren 1ean, eta 13 ordu eta 14 minutukoa hilaren 31an.
- Hilaren 10an, 23:49tan, eguzkia itxuraz Leo konstelazioan sartuko da (138,29^o).
- Hilaren 12tik 13ra doan gauean, lurak 133 urte periodoko "109P Swift-Tuttle" kometak utzitako ahutsu lorratza zeharkatzen du, hauts partikula hauek atmosferan sartzean, sortutako igurtzimenduak gori jartzen ditu, Perseidas izeneko izar iheskorak sortuz. 26 km diametroa du, eta lurak duen mehatsu handiena da, Gerturatze handiena 4.479.urtean izango da.
- Hilaren 23an, astrologiaren arabera, eguzkia Virgo konstelazioan sartuko da (150^o). Zodiakoaren zeruko mugek eta izen bera daramaten zodiakoko konstelazioak ez dira berdinak.